

Erdaraz, mesedez:

autoitzulpen literarioa Euskal Herrian. Ikuspegi orokor bat

GARAZI ARRULA RUIZ (UPV/EHU)

Sarrera

Euskal Herriko egoera linguistikoa diglosikoa izanik (hizkuntzen banaketa funtzional hierarkikoa), eta ez horregatik bakarrik, itzulpena eta autoitzulpena jardun zabalduak dira, argitalpen honen irakurleak ongi dakienez. Liburugintzaren eremuan, Joan Mari Torrealdairen azterketa berriena hartuz gero, 2015eko jardunari buruzkoa, ikusiko dugu azken urteetako joera indartzen dela; zehazki, % 31,5 ekarri da euskarara, gaikako azterketan batetik bestera alde handia badago ere (2016: 133). Nolanahi den, zehazki testuliburuei buruz ari delarik, Torrealdaik ohartarazten du ehunekoa handiagoa ere izanen dela: «Gertatzen da erdal jatorriko liburu askotan kamuflatu, mozorrotu edo ezkutatu egin ohi dutela jatorriko marka, eta moldapen edo beste gisa batera aurkezten dutela. Jatorrizko liburuak azterturik jabetzen da bat honetaz: osoki ez bada neurri handi batean erdarazkoa dutela ama mozorroturiko testu horiek» (2016: 144-145). Kontrako noranzkoan eta artikulu honen gaiari mugatuta ere, hots, euskaratik autoitzulitako literatura-lanen kasuan, maiz gertatzen da ezkutatu nahi bat, hainbat arrazoi dela medio; doktore-tesian jorratu ditut guztiak ere. Hain zuzen, aurrez ikertzaile batzuek (Manterola, 2012; Lopez Gaseni, 2005) hasitako bideari heldu, eta autoitzulpengintzak Euskal Herrian zer espazio eta zer baldintzatzaile dituen aztertu nahi izan dut, baita autoitzulpen-jardunaren joerak deskribatu ere.

Euskaraz ekoizten duten idazle guztiak elebidunak edo eleaniztunak dira, baita hartzaileak ere; biek ala biek ez dute euskarazko literatura-sistematik soilik edaten, eta esanen gure erdarazko sistema eskurago dutela (ekoizpen kopuruari eta aniztasunari erreparatuta). Itamar Even Zoharrek (1990) proposatutako literatura-sistemaren eskema kontuan hartuta, eta literatura-(poli)sisteman eragina duten faktoreak (erakundeak, errepertorioa, kontsumitzailea, merkatua eta produktua) banan-banan aztertuz gero, ikusiko dugu elementu bakar batek ere ez duela modu autonomoan funtzionatzen gurean, eta, batera edo bestera, beti dagoela mende-

tasun-harremanen bat hizkuntza/sistema hegemonikoekiko. Horrek, noski, etxeko ekoizpena baldintzatzen du, baita aztergai dugun autoitzulpen gintza ere.

Itzulpen-ikasketa deskribatzailei jarraikiz (Toury, 2012), bada, autoitzulpena bai teorikoki bai praktikoki aztertzea da 2018ko udaberrian aurkeztu asmo den doktore-tesiaren helburu nagusia, euskaratik gaztelaniara/frantsesera autoitzultzen duten idazleen obrak oinarri hartuta. Artikulu honetan, ordea, ikuspegi orokorra baizik ez dut aurkeztuko, autoitzulpen gintzaren oinarri teorikoa eta datu kuantitatiboak emanez.

Arloa zertan den

Behin baino gehiagotan idatzi izan denaren kontra, autoitzulpena ez da bazterreko jarduera edo gutxi batzuen zeregina (Santoyo, 2005), geroz eta hedatuagoa den ariketa bat baizik; hala ere, gaiaren inguruko ikerketa aski berria da, 1980ko urteetan egin baitziren lehen urratsak (Tanqueiro, 2013). Ordutik, jakintza-arlo askotatik begiratu izan zaio autoitzulpenari, eta, azken urteetan, ugaritzen ari dira gaiari buruzko mintegi eta argitalpenak (horren adierazle da, besteak beste, Eva Gentesek sortu eta eguneratzen duen sareko bibliografia luzea).¹

Literaturan jarri dut nik arreta, bere zabalean, eta itzulpenaren beraren markoan kokatu dut autoitzulpena, beste hainbatek bezala. Tanqueiroren hitzak baliatuz (1999), autoitzultzailea itzultzaile pribilegiatua izan daiteke; itzultzaile, nolana ere. Izan ere, autoitzulpenaren kasuan autorea eta itzultzailea bat eta bakarra denez, maiz idazletasunaren itzalpean geratzen da itzultzaile izaera, eta ez da beharrik ikusten sorburu-testuari erreferentziarik egiteko; horrek, besteak beste, lehenik idatzitako euskarazko testua ezkutatzea ekar lezake, goragoko aipuan Torrealdaiak zioenez, beste testuinguru batez ari bazen ere.

(Auto)itzulpenaren ezaugarri funtsezko bat da bi hizkuntzen arteko harreman soziala; horregatik ere, bistan da ez dela gauza bera, esate batera, frantsesaren eta gaztelaniaren arteko autoitzulpena eta euskaratik gaztelaniarakoa, ez euskaratik okzitanierarakoa, kasurako. Gurean egiten den autoitzulpena idazketa endogenoko elebitasunean oinarritzen da (Grutman, 2013: 41). Endogenoa esaten diogu espazio geografiko berean bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direlako; kontrara, elebitasun exogenoaz mintza gaitezke idazle migratzaileen kasuan, hain zuzen historian gehien ikertutako autoitzultzaileak baitira (Gentes, 2015); adibidez, Nabokov, Huston eta Beckett. Orobat da aipatzekoa euskara tarteko duten literatura-autoitzulpen ia guztiak supra-autoitzulpen direla (Grutman, 2011: 70), hots, hizkuntza periferiko/subordinatutik zentral/hegemonikora izaten da noranzkoa (Casanova, 1999). Hala ondorioztatu zuen Elizabethe Manterolak (2012: 15), euskal idazleek autoitzulpenarekiko dituzten jarrerak aztertu, eta kasuistika zabala erakutsi zuenean. Testuinguru soziolinguistikoa aintzat hartzea ezinbestekoa da, beraz, autoitzulpen gintza aztertzerakoan, datuetan eta itzulpen-hautuetan eragin zuzena izan baitezake, segidan ikusiko dugunez.

1. Blogspot plataforman duen gunean aurki daiteke, «Bibliography on self-translation» atalean.

Zuri ala beltzetik urrun

Idazle batek bere lana itzultzeko erabakia hartzen duenean, modu kontzientean hartzen du erabaki hori, eta hainbat arrazoik bultzatuta. Publiko zabalago batengana iristeko edo norberaren lana beste hizkuntza batean lantzeko autorearen borondateaz gainera, badira literatura-sistemaren nolakotasunari loturiko arrazoiak ere; argialetxei errentagarriagoa zaiela eta itzulpenaren prestigioa oraindik ere txikia dela, kasurako. Autoitzulpena sustatzen duten motibazioak askotarikoak izan daitezke, bada, ikertzaile ugariak erakutsi dutenez (Parcerisas, 2002; Lopez Gaseni, 2005; Anselmi, 2012; eta Gentes, 2013).

Barne-motibazioa eta kanpo-motibazioa bereiz ditzakegu, autoitzultzeko arrazoiaren ardatza autorearengan ala literatura-sisteman jartzen dugun. Orobat izan dira askotarikoak idazleek beren lanak ez itzultzeko eman dituzten arrazoiak; gurean, esaterako, ezagun da Anjel Lertxundiren jarrera: «Nire bizitza osoa eman baldin badut estilo jakin hori lantzen hizkuntza jakin batean, zertan hasi behar dut neure libururen bat itzultzen, aurrez baldin badakit guztiz neutralizatuta geldituko zaidala nik nahi nukeen estilo hori?» (Egia, 1999: 120). Hautu estilistikoak ez ezik arrazoi soziopolitikoak aipatu dituenik ere bada; Christopher Whyte idazle eskoziarra, kasurako: «Autoitzulpenaren jardunak jatorrizko idazketa prozesuaren sinesgarritasuna ahultzen du» (2000: 183, nire itzulpena). Jatorrizkotasunaren kontzeptuarekin oso bat egiten ez badut ere, Whyteren argudiatzea aintzat hartzekoa da: autoitzulpena jardun inozentea ez dela esateaz batera, berak dio erbeste edo mendekotasun handiko egoeretan egiten dela. Hizkuntzaren ez-normalizazio egoeraren haritik mintzo da Joxe Azurmendi ere, bere lana eskusiboki euskarazko munduari eskaini nahi diola esatean: «Euskaraz egiten dugun dena erdaraz ere jartzen badugu, euskararen beharrik ez du edukiko inoiz bilbotarrak» (Agirre Dorronsoro, 2014). Argi dago, beraz, kanpo-motibaziotzat hartutako arrazoiak, besteak beste, kasuan kasuko hizkuntzen/merkatuen arteko botere-harremani dagozkiela. Azkenik, barne- eta kanpo-motibazioak bereizi baditut ere, ez dira bi bloke monolitiko, elkarri eragiten diote, eta aldagarri dira.

Zernahi, itzulpen izan ezik

Literatura-lan autoitzulpei buruz aritzeko, *bertsio*, *berridazketa* eta *moldaketa* hitzak darabiltzate sarri kazetari, editore eta autoreek berek; itzulpen alografoei buruz ere inoiz termino horiek erabiliz mintzo direla jaso dut tesian, batez ere autorearekin nolabaiteko lankidetzan egindako itzulpena bada; hori, gainera, ohikoa da gurean (Manterola, 2012). Euskarazko eremura eta autoitzulpenera mugatuta, horren erakusgarri den adierazpen ugari biltzen ahal ditugu, hala nola Karmele Jaiorena, *Heridas crónicas* ipuin-bildumaren harira: «Egjaz, zuzenagoa litzateke berridatzi ditudala esatea, horietako batzuk oso zaharrak baitziren, eta nahiago izan dut zenbait gauza aldatu» (*El Correo*, 2010/06/24, nire itzulpena); Marikita Tanburinena, *Bi saiakera emazteen izenean / Deux essais aux noms des femmes* edizio elebidunari buruz: «Frantseko itzulpena neurek egina dut, eta itzulpena baino gehiago da adaptazio bat» (*Euskal Irratiak*, 2014/12/02); eta Iban Zalduearena, jardunaz oro har hizketan: «Norberak itzultzen duenean

ez du benetan itzulpen bat egiten (...). Bertsioak direla nik oso argi daukat» (mintzanet.net, 2015). Autoitzulpen bat nola aurkezten den, hala jasoko du irakurleak.

Izendapen-saltsa horren oinarrian, pentsa daiteke itzulpena > fidelatasuna lotura dagoela, inplizituki bada ere (esplizituki esaten baita kontrakoa: aldaketak > bertsioa); horrek sortuko luke sorburu-testuari hertsiki jarraitzen ez dion hori bestela izendatzeko beharra, beste arrazoi batzuk ere egon daitezkeen arren (itzulpenak oraindik ere izan dezakeen konnotazio negatiboa, egiletasunaren zilegitasuna eta arrazoi komertzialak, esaterako). Itzulpenaren adiera zabalago bat edo kontzeptuaren berresanahitze bat beharko genuke, apika, non kodez aldatzearekin hitzez-hitzez kotik harago moldatzen diren testuek itzulpen izaten segituko luketen. Ez *bertsio* hitzak kirrinka egiten digulako, ez itzulpenaren debaldeko goraiatzeko bat egin nahi dugulako; baizik eta horrela egiletza ez ezik bitartekaritza ere adierazten delako, bigarren maila batean utzi ordez. Oro har, gertatzen da autoitzulpenean egiletasuna lehenestea; gurean, ordea, esanen nuke horretaz gainera badela beste elementu bat: iruditzen zait *itzulpena* baztertzearen arrazoiak txikitasun konplexu batean ere oinarritzen direla eta gure egoera anormala elikatzen dutela.

Horrela, kausa-ondorioen beste ordena bat aldarrikatu dezakegu: egileak ez du itzulpen berritzailea egiten egilea delako (eta horretarako, ustez, zilegitasuna duelako), baizik eta itzulpen berritzailea egiten duelako da egile. Hots, autoitzultzailea izan edo itzultzaile alografoa izan, itzulpenean modu sortzaileago batean jokatzu gero, egiletasuna edo, zuzenago, sortzaile izaera nabarmentzen da (emaitzaren itzulpen-izaerari uko egiteke). Bestela, itzultzailea ez da sekula sortzailatzat hartuko, eta itzulpenak ez du kopiaren murrizketa sekula kenduko (uler bedi hor kopia konnotazio negatiboekin). Terminologia zehaztu nahian, esanen nuke itzulpen oro dela berridazketa bat (ez alderantziz), eta adaptazioa itzulpen-estrategia bat dela. *Berridazketa*, *bertsio* eta *adaptazio* hitzek, gainera, ez dute, bere horretan, hizkuntza-aldaeren adierazpenik ematen, eta transferentzia hori ikusezin geratzen da.

Identitate-(des)eraikuntzarako tresna

Autoitzulpenari buruzko teorizazioan, irudipena dut errazegi datorrela emaitzaren nahiz egilearen identitatea(k) hizpidera, hizkuntza- eta kultura-bitasunari lotuta. Esaterako, Paschalis Nikolaouk dio transposizio linguistikorekin hasten den autoidentitate ariketa bat dagoela norberaren obra itzultzearen jardunean (2005). Eva Gentesen arabera, berriz, «autoitzultzailearen bi identitateak orekatzeko bidetzat hartzen da autoitzulpena, hizkuntza bati ematen zaion lehenetasuna behin-behinekoa baizik ez delako» (2013: 268, nire itzulpena). Identitate bikoitz bat, beraz, konplexua, zeinaren bidez sortzaileak bere partaidetza- eta erreferentzia-markoei loturiko diferentziak ezagutzen baititu (Lagarde, 2013). Gehienetan, ordea, identitatearen auzia aipagai huts da, arrazoiketa teorikorik gabea; hamaika galdera sortzen dira baieztapen biribil horietatik: zer dela eta bi identitate? Bereizgarriak al dira? Zergatik da behin-behinekoa hizkuntza batekiko preferentzia? Hizkuntza lehenetsi hori bera da beti? Galdera horiei erantzun eta autoitzulpena-

ren eta identitatearen arteko loturari argi eman nahian, dikotomiak alboratu, teoria psikosozialez baliatu eta horiek testu azterketan aplikatzeko moduak proposatu ditut (Arrula Ruiz, 2017).

Aztergaia artikulu honen neurri eta helburuetara eta, beraz, makro mailara mugatuz, bada identitateari nondik heldu. Xosé Manuel Dasilvak dioenez (2009: 146), Espainiako estatuaren erdiguneak ez du begi onez ikusten gaztelaniaz idatzitako testuak hizkuntza periferikoetara itzultzea (zer esanik ez frantses sistemak), salbu eta, beharbada, haur eta gazte literatura (HGL), prestigioari dagokionez bazterreko generoa baita oraindik ere (Zubillaga, 2013: 37; Sanz, 2015: 253). Bestalde, bistan da Estatuak endozentrismorako joera bizia duela, hizkuntza periferikoetan sorturiko testuak hizkuntza hegemonikora itzultzeaz gainera autoitzulpenen bidez jatorrizkotzat aurkeztea nahi izaten baitu, idazlea elebiduna den heinean eta ustez literatura-sistema nagusiaren parte ere badelako. Euskarazkoari edo itzulpenari erreferentziarik egiten ez zaionean, xede-literaturaren sisteman jatorrizko obratzat hartzen ahal da itzulpena; kasu horretan, itzulpen opakuaz (Dasilva, 2011) edo inplizituaz (Santoyo, 2014) mintzatuko ginateke, eta identitate linguistikoa desagertu eta zentro/periferia edo menderatzaile/menderatu ereduak indartu daitezke (Casanova, 2002: 8).

Horrek sorburu-kulturaren/-hizkuntzaren asimilazio-arriskua handitzen duela nabarmendu, eta beste mehatxu bat ere aipatzen du Dasilvak (2009): obra horiek beste hizkuntza batera itzultzean, gaztelaniazko bertsioa hartzen da zubi-hizkuntzat, eta horrek hirugarren hizkuntza horretako hartzaileei pentsarazten die «jatorrian» gaztelaniaz dagoela idatzia liburua (Atxagaren obra oinarri duen adibide bat ematen du Apalategik, 1998: 71-72). Ondorioz, autoitzulpena (gaztelaniazkoa/frantsesezkoa) kanoniko bihurtzen da (Manterola, 2013: 63), eta, jatorrizkotzat hartzen denez, jarrera neokolonial bat geratzen da agerian (Spivak, 1993); horren bidez, obraren eta, ondorioz, idazlearen identitate kultural eta linguistikoa guztiz neutralizatzen da.

Azken urteotan azaldu den beste hautu bat da euskarazko sorburu-testua eta autoitzulpena aldi berean merkaturatzea; horrek ere eragina izan dezake obraren nahiz autorearen identitatearen proiektzioan. Lehen zirriborroa idatzi eta hori bukatu edo argitaratu gabe aldibereko itzulpena egiten denean beste hizkuntzara (Grutman, 1998), itzulpen-prozesuan sorturiko zalantzek lehen testuan eragin dezakete (Manterola, 2012: 88), eta hori nolabaiteko itzulpena litzateke: itzulpenaren itzulpena, hain zuzen. Horrela, ordena kronologikoa eta identitate linguistiko-kulturala lausotzen dira, eta testuak beste hiztun-komunitate bat ere helburu izanzen duela jakiteak euskarazkoaren idazketan eragin dezake;² horixe ondoriozta dezakegu, kasurako,

2. Hala esan izan du inoiz Itxaro Bordak, bere obra itzultzeaz ari dela:

Norberak bere idatziak itzultzen dituenean, euskaraz kontatutako gauza asko molde ezberdin batez erran behar dira frantsesez irakurgarriak eta onargarriak izateko. Eta autozentsura edo isilune horiek jatorrizko sorkuntzan ere eragina izan dezakete. Orain idazten ari naizen nobelarekiko, adibidez, behin baino gehiagotan pentsatu dut noizbait itzuli beharko badut nekeak edukiko ditudala. Beraz, laxokiago izkiriartzen dut, metaforak arintzen eta beste, baina hori pentsatzen dut lehen hitzetan eta gero ahanzten dut; euskararen zurrunbiloan urtzeko berriro. Nire jaidura naturalak itotzen nau. (Urkiza, 2006: 284)

Alex Gurrutxagak Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* liburuari egindako iruzkinean (Berria, 2017/01/08); Uriberena autoitzulpena ez bada ere, arrazoiketa bera da.

Euskaratik Autoitzulitako Literatura katalogoa

Oinarri teoriko-metodologikoa jarri eta gero, bada, Euskaratik Autoitzulitako Literatura (EUSAL) izeneko katalogoa osatu dut, jardunaren ikuspegi orokor bat izateko; hots, orain arte zer egin den. Elizabete Manterolak egindako Euskal Literatura Itzuliaren katalogotik abiatu naiz, non autoitzulpenak identifikatu baitzituen, itzulpen alografoez eta lankidetzan egindakoez gainera (2012). Horrela, katalogo horretako datuak abiapuntu izanik eta bilaketa xehe bat egin ondoren, 325 titulu jaso ditut EUSAL katalogoan, datu hauekin batera: egilea, argitalpen-datak eta lekuak, argitaletxeak, ISBNak, orrialde kopuruak, literatura-generoa eta beste zenbait ohar. Titulu gutxi batzuk galdera-markarekin jaso ditut, ezin esan baitezaket ziur autoreak berak itzuliak diren, datu faltaz. Frantsesera egin diren autoitzulpenak aldizkarietan ere bilatu ditut, *Maiatz*en bereziki (gaztelaniarako autoitzulpenei dagokienez, berriz, liburu-formatuan kaleratuak baizik ez ditut kontuan hartu). Aipatzekoa da katalogoaren azken eguneratzea 2015eko irailaren 7koa dela eta egun horretara arte bildutako datuak izanen ditugula aztergai.

Xede-hizkuntzaren araberako azterketa

Egoera soziolinguistikoa dela eta, espero izatekoa zen xede-hizkuntza nagusiak gaztelania (lehenik) eta frantsesa (neurri txikiagoan) izatea, eta hala berresten dute jasotako datuek. Katalogoan bildutako autoitzulpenen hizkuntzak hauek dira: gaztelania, frantsesa, esperantoa, ingelesa, katalana, txekiera eta alemana. Hala ere, azkeneko laurak argitalpen eleaniztun digital batean agertzen dira soilik, eta esperantora autoitzulitako liburu bakarra jaso dugu.³

Kopuruetara bagatoz, xede-testuen hizkuntzei begiratuta, 325 autoitzulpen ez, baizik eta 331 xede-testu zenbatu ditugu, autoreak berak xede-testu bat baino gehiago sortu baitu edizio eleaniztun batzuetan. Horrela, gaztelaniara kopuru osoaren (331) % 86,4 autoitzuli da (286), frantsesera % 11,8 (39) eta beste hizkuntzetara % 1,8 (6); bistan denez, gaztelania da, alde handiz, autoitzulpenen xede-hizkuntza nagusia.

Alta, edizio elebidun edo eleaniztunei erreparatzen badiegu, kopuruak aldatu egiten dira. 325 titulu autoitzulietatik, edizio elebidunak 64 dira, eta eleaniztunak, berriz, 21. Gainontzeko

Pentsamendu horri prozesu osoan eusten ez badio ere, idazle baionesak aitortzen du zenbaitetan idazketan baldintzagarri gertatzen zaiola geroko itzulpen balizko baten ideia. Era berean, *autozentsura* hitza darabil kodez aldatzeak sor ditzakeen egokitzapenak euskarazkoan bertan saihesteko ahalegina izendatzeko. Autozentsura horrek idazlearen identitatean eraginik ba ote duen gorabehera, hipotesi modura esanen genuke egokitzapenak edo ustez egokitu beharrak abiapuntua duela identitate konplexuen eta errepresentazio sozial diferenteen kontzientzian (Arrula Ruiz, 2017).

3. Plurala erabiliko dut datuak ematean, EUSAL katalogoa osatzeko lana kolektiboa izan baita, nolabait, ELI katalogoan oinarritu bainaiz eta jende askorengana jo baitut galdezka.

240 autoitzulpenak, beraz, edizio elebarreretan kaleratu dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, edizio eleaniztunen itzulpen guztiak autorearenak direnik. Izan ere, edizio eleaniztunetan, autoreak hizkuntza bakar batera egin du oro har autoitzulpena, eta beste hizkuntzetako testuak itzulpen alografoak dira, sorburu-hizkuntza argi ez badago ere. Edizio elebidun eta eleaniztunen kasuan, ikusi dugu gaztelaniaren eta frantsesaren arteko aldea ez dela kopuru orokorra bezain handia, azpiko grafikoek erakusten dutenez. Horrek esan nahi du, proportzioan, edizio elebidun edo eleaniztunetan agertzen diren autoitzulpenak ugariagoak direla frantsesera egiten direnean.



1. irudia. Xede-hizkuntzaren araberrako autoitzulpenak

Azterketa kronologikoa

Sorburu-testuen eta itzulpenen argitalpen-urteari begiratuta, ikus dezakegu gerora autoitzuli diren sorburu-testu gehienak azken hiru hamarkadetakoa direla. Gainontzean, 43 sorburu-testu ditugu 1990 baino lehenagokoak, eta 34 titulu dira garai horretako autoitzulpenak.


Aurkitu dugun lehenengo autoitzulpena 1657koa da,⁴ nahiz eta haren faksimile bat gorde den, 1936koa.⁵ Arnaut Oihenart mauletarrak legegizon, historialari eta poetak sinatu zuen *Les Proverbes basques recueillis par le Sr. D'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur* atsoituz eta poesia bilduma. Asmo didaktikoa gorabehera, iruditzen zait hori ere literatura-autoitzulpena

4. Zehazki, hori da autoitzulpenentzat jotzen dugun lehenena. Izan ere, norbaitek pentsa lezake badirela XVI. mendearren bigarren erdialdean autoitzulpenentzat har daitezkeen beste argitalpen batzuk (mila esker Amaia Apalauzari, ohararazpenagatik), dela eskuizkribua, dela inprimatua, erretrau-biltzea literatura-molde aitzindaria baitugu. Haietako bat da *Refranes y sentencias* bilduma anonimoa, 1596an Iruñean kaleratua. Julio Urquijok bilduma horren azterketa konparatiboa egin zuen (1911), kontestualizatuz eta iturriak bilatzen saiatuz; horrela, Garibairen egiletasunaren alde egin zuen, eta gehienbat Hernán Núñez-en bildumatik itzuliak zirela ondorioztatu. Nolanahi ere, *Refranes y sentencias* edizio kritikoa, Joseba Lakarrak bertan behera uzten du Urquijoren tesia (1996), aski argudiatua ez delakoan; azterketa linguistikoa xehe baten bitartez, Lakarrak ondorioztatzen du soilik % 10 inguru izan daitekeela Hernán Núñez-en bildumatik mailegatuak (1996: 75). Egilerik ez du obrak, eta ezin jakin pertsona bakarrak egin zuen ala talde-lana izan zen; batek zerrenda osatu, eta beste batek egin ote zuen hitzez-hitzezko itzulpen zenbakitua, esaterako. Hori guztia kontuan hartuz, Oihenartena jo dugu lehen autoitzulpenentzat, hitzez-hitzezko itzulpen filologikotik aldentzen den eta kutsu literarioa duen lehen bilduma izenpetua delakoan.

5. Hori da guk sarean kontsultatu duguna, Biblioteca Virtual del Patrimonio Bibliográfico atarian.

dela; atsotitzen interpretazioa, batetik, eta lexikoaren azalpena, bestetik. Oihenartenaz gainera, katalogoan bildutako lehen autoitzulpena pastoral bat da, *Maitena: pastorale lyrique en deux parties* izenekoa. Etienne Decreptek idatzi, eta 1910. urtean argitaratu zuen, Baionan, edizio elebidun batean; alegia, euskaraz eta frantsesez. Lehen autoitzulpenetako gehien-gehienak euskarazko edizio elebidunak dira, izan gaztelaniaz, izan frantsesez. Gainera, esan dezakegu ahozko literaturatik hurbil daudela guztiak, pastoral-, olerki- eta atsotitz-liburuak baitira, eta, bestela, asmo didaktikotik; Azkueren *Euskaleriaren Yakintza* bilduma, kasurako.

Azpiko grafikoak erakusten duenez, 90eko urteetan autoitzulpen kopurua izugarri handitu zen; zehazki, 85 titulu jaso ditugu denbora-tarte horretan, berrargitalpenak aintzat hartu gabe. Hurrengo urteetan, 2000ko urteak arte, autoitzulpen kopurua nabarmen handitu zen, batez ere HGLn egindakoei esker; eskolarako materialaren beharrak bultzatuta, segur aski. 2000tik 2015era bitartean, oreka handiagoa dago generoen artean, edo, behintzat, HGLren nagusitasuna ez da hain agerikoa.



2. irudia. Autoitzulpen kopurua hamarkadaz hamarkada

Bestalde, esan dugunez, katalogoan guztira 325 titulu bildu baditugu ere, haietako 85 edizio elebidun edo eleaniztunetan kaleratu dira, eta 240 titulu autoitzuli edizio elebarkarretan. Edizio elebarkar horietako sorburu- eta xede-testuen arteko denbora-tarteari erreparatuz gero, oro har, denbora gutxi pasatzen da euskarazkoa kaleratu eta erdarazkoa atera bitartean. Hain zuzen, edizio elebarkarreko obra gehienetan (% 62,1), euskarazkoa publikatu eta, asko jota, hurrengo bi urteetan kaleratu da erdarazkoa. Gogoan izanik edizio elebarkarrez soilik ari garela, xede-testuaren agerpen azkarrak tarte gutxi uzten dio euskarazkoari bide autonomoa egin dezan.

Autoitzultzaile bakoitzaren lan kopurua

Autore-itzultzaile kopuruari begiratu gero, 125 autoitzultzaile jaso ditugu katalogoan. Beraz, argi da autore batzuek bere obra bat baino gehiago itzuli dutela. Azpiko taulan jaso ditugu titulu gehien autoitzuli dituzten hamar autoreak.

	Autorea	Titulu kopurua		Autorea	Titulu kopurua
1.	Piedad Ateka	33	6.	Harkaitz Cano	9
2.	Juan Kruz Igerabide	26	7.	Miren Agur Meabe	8
3.	Mariasun Landa	20	8.	Patxi Zubizarreta	8
4.	Bernardo Atxaga	17	9.	Itxaro Borda	6
5.	Aitor Arana	10	10.	Unai Elorriaga	6

1. taula. Autoitzulpen gehien egin dituzten idazleak

Bistan denez, autore garaikide horietako gehienek haur- eta gazte-literatura idazten eta autoitzultzen dute; esaterako, Piedad Atekaren 33 titulu autoitzuli horiek guztiak HGL dira. Gauza bera esan dezakegu taulan ageri diren gainontzekoez ere, proportzio txikiagoan bada ere, kopuruen gehiengo irakurle gaztetxoak helburu dituzten obrei baitagokie. Salbuespen dira, hala ere, Harkaitz Canoren, Unai Elorriagaren eta Itxaro Bordaren argitalpenak. Hiruron liburu autoitzuli gehienak (edo denak, Itxaro Bordaren kasuan) helduentzako literatura-lanak dira. Nolanahi den, argi ikus daiteke HGLren nagusitasuna autore horien autoitzulpenetan, eta hori bat dator, noski, titulu autoitzulien datu orokorrekin, generoen arabera azterketan ikusiko dugunez.

Kopuru handi horiek gorabehera, gehiago dira beren obra bakar bat autoitzuli duten autoreak obra bat baino gehiago autoitzuli dutenak baino. Zehazki, 80 autore ditugu obra autoitzuli bakarrarekin, hau da, guztien % 64. Horietaz eta taulan ageri direnez gainera, honela banatzen dira beste kopuruak: 15 autorek 2 obra autoitzuli dituzte; 11k, berriz, 3 obra autoitzuli dituzte; 6k, beren 4 obraren itzulpena egin dute; eta, bukatzeko, 2k baino ez dituzte autoitzuli 5 obra.

Datu horiek adierazten dute idazle gehienentzat zerbait ezohikoa dela autoitzulpena, nahiz eta orobat erakusten duten autoitzultzaile kopurua handia dela eta, beraz, jardun zabaldua dela.


Generoen arabera azterketa

Arestian aipatu dugunez, HGLren autoitzulpena nagusi da beste generoekin konparatuta. Aldea nabarmena da: autoitzulpen guztietatik —alegia, 325 titulutatik—, 146 dagozkie HGLri (% 44,9); ia erdia, beraz. Esan behar dugu guzti-guztiak direla gaztelaniarako autoitzulpenak, eta, ondorioz, ez dugula aurkitu frantsesera autoitzulitako HGLko libururik. Datu esanguratsua iruditzen zaigu hori; izan ere, esan nahi du gaztelaniara autoitzulitako liburu guztien erdiak baino gehiago dagozkiola HGLri, eta, nolabait, jarduna sistematizatuta dagoela. Gehien-gehienak edizio elebarkarretan argitaratu dira —gaztelania hutsean, esan nahi baita—, eta 146 horietako 4 baizik ez dira izan euskara-gaztelania edizio elebidunak.

Nagusitasun horretarako arrazoi bat izan daiteke euskarazko eta gaztelaniazko sistemen eta merkatuen elkarlana. Hau da, euskaraz lehenik eta gaztelaniaz gero kaleratu duten argitale-

txeetako batzuk (besteak beste, Gero-Mensajero, Giltza-Edebé, Alfaguara-Zubia) Espainiako estatuko argitaletxeen euskal adar edo ordezkariak dira; horrela, hizkuntza gutxitu batean argitaratzean, aukera handia dago argitaletxe berak lan hori hizkuntza hegemonikoan ere eskatzeko (Lopez Gaseni, 2000; Zubillaga, 2013).

Kopuru aldetik, hurrengo genero ugariena eleberria da. Jauzi handia dago aurrekoaren aldean, 45 eleberri autoitzuli zenbatu baititugu (% 13,8). Horietako gehienak ere gaztelaniara itzuli dira; bi eleberri baino ez ditugu jaso frantsesera autoitzuliak: Itxaro Bordaren *100 % Basque* eta Aurelia Arkotxaren *Septentrio*. Hirugarren genero autoitzuliena poesia da: 39 poesia-sorta⁶ autoitzuli jaso ditugu (% 12). Aurrekoak ez bezala, poesiaren kasuan, autoitzulpen gehienak edizio elebidunetan kaleratu dira, bai gurean argitaratutakoak, bai Euskal Herrietik kanpoko argitaletxeek kaleratutakoak; hori ohiko joera da hizkuntza gutxituetako poesian (Krause, 2005). EUSAL katalogoaren arabera, hurrengo genero autoitzuliena saiakera da, 28 titulu jaso baititugu (% 8,6), eta oso hurbiletik segitzen dio narrazioak, 26 baitaude (% 8). Gainontzeko generoen autoitzulpen kopurua urriagoa da. Narrazio beste antzerki-lan ditugu, baina bitan banatu dugu antzezlanen kopuru hori: batetik, pastoralak (21), eta, bestetik, gainontzeko lanak (gaztelaniara, 5). Izan ere, pastorek genero beregain bat osatzen dutelakoan gaude; bai, behintzat, aztergai honi dagokionez. Katalogoan jaso ditugun beste generoak —hagitez urriagoak— hauek dira: komikia (5), biografia (2), abestiak (1), bidaia kronika (1) eta «besteak» deitu duguna (6). Azpiko grafikoen ikus daiteke autoitzulpenen generoen sailkapena.



3. irudia. Autoitzulpenak generoen arabera


Xede-testuaren argitalpen-lekuak

Lehenengo begiratuan, argi ikusten dugu autoitzulpen gehienak (proportzioan) Euskal Herrian bertan argitaratu direla. Datu esanguratsua iruditzen zaigu; hipotesi modura, esan

6. Poesia-sorta diogu ez direlako zehazki 39 liburu, batzuk *Maiatz* aldizkarian kaleratutako poesiak baitira.

dezakegu euskaraz irakurtzen ez duten (bai ez dakitelako, bai hizkuntza nagusian irakurtzera ohituak daudelako) euskal herritar horiei zuzentzen zaizkiela, oro har, euskaratik autoitzulitako liburuak. Itzulpenak asmo duen hartzaile nagusia hori litzateke, beraz, eta ez gure mugetatik kanpo bizi dena; berariazko azterketarik gabe, hipotesizat baizik ezin dugu aurkeztu hori.

Zehazki, 165 autoitzulpen kaleratu dira Euskal Herrian; kopuru osoaren % 50,8. Probintziaz probintzia aztertuz gero, ikusiko dugu Gipuzkoan kaleratu direla gehienak (% 21,5), eta hurrenez hurren ditugu Bizkaia (% 18,1), Lapurdi (% 4,3), Nafarroa (% 3,7), Zuberoa (% 1,8) eta Araba (% 1,2). Beraz, Baxenabarren kaleraturiko autoitzulpenik ez dugu aurkitu. Zuberoan kaleraturiko guztiak pastoralak dira; dirudienez, tokiko ekoizpenak tokiko antzezpena du helburu. Euskal Herrian kaleratzen bada ere gehien, Espainiako estatuan ateratako liburuak ez dira gutxi; 84 zenbatu ditugu (% 25,8). Alde handia dago, ordea, kopuruan: gehienak, argitalpen-ekoizpen handiena han dagoelako, Madrilgo Erkidegoan kaleratu dira; 58, zehazki. Frantziako estatuan, autoreak itzulitako bi liburu baizik ez dira atera (% 0,6), eta, beraz, esan dezakegu, edizio elebidunak izanagatik ere, Ipar Euskal Herriko autoreek lurraldeko argitaletxeetan kaleratzen dituztela autoitzulpenak. Gainontzeko argitalpen-lekuak ez dira asko (% 1,2): Mexiko Hirian eta Bruselan liburu bana eta Buenos Airesen bi liburu.



4. irudia. Autoitzulpenak argitalpen-lekuaren arabera

Ondorioak

Lehenik eta behin, eta bukaeratik hasita, aipatu behar da katalogoan bildutako datuek erakusten dutela autoitzulpenen kopurua gorako joeran ari dela eta gurean ere ez dela jardun gutxitua.

Ikusi dugunez, katalogoan bildutako frantseserako autoitzulpen ia guztiak edizio elebidun edo eleaniztunetan kaleratu dira, sorburu-testuarekin, hots, euskarazkoarekin. Hori ez nuke kezkarritzat joko baldin eta, aurretik, euskarazko testuak edizio elebakarrean bere bidea egin izan balu. Alta, ez dugu halakorik aurkitu, kontrakoa baizik. Irakurleak euskarazkoarekin batera jasotzen du frantsesezkoa, lehenengoz eta euskarri fisiko berean, autorearen sinadurarekin. Euskarazkoak, bizitzeko, ondoan frantsesezkoa beharko balu bezala. Susmo hori indartzen du euskarazko ibilbide autonomoa izandako bi liburuak (Bordaren *%100 Basque* eta Arkotxaren *Septentrio*) Gipuzkoako argitaletxeren batean kaleratu izanak. Nolabait, edo Hego Euskal Herrian kaleratzen da euskarazkoa (gure sistema menderatuaren erdigunean), edo, nahitaez, frantseserako autoitzulpenaz lagundurik argitaratu behar da.

Jakina, Ipar Euskal Herrian euskara hutsean kaleratzen den liburu kopurua zein den jakin beharko genuke hipotesia betetzen den ala ez ikusteko. Alta, saiatu arren, ez dut datu hori lorzerik izan, ez baitago Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako berariazko ekoizpen-daturik. Nolanahi den, esanen nuke ez dela handia izanen, jakina baita argitaletxe urrik jarduten dutela horretan. Hipotesi kezkarria iruditzen zait, beraz, batez ere ez diolako laguntzen euskararen normalizazio-prozesuari, eta baita literatur sistema bera ahultzen eta, tamalez, Hego Euskal Herriaren zein Frantziaren mendeko(ago) egiten duelako ere.

Egungo eta biharko iker-asmoak

Doktorego-ikerketan, corpus digital, paralelo eta eleaniztun bat sortu dut, katalogoko hamar idazleren sorburu-testu bana eta haien hamalau autoitzulpen biltzen dituen. Guztiak dira helduentzako prosazko testu garaikideak; hamar lanetako zortzi gaztelaniara autoitzuli dira eta bi frantsesera. Sorburu-testuak hauek dira, irakurleak jakin-minik balu: *%100 Basque* (Itxaro Borda), *Septentrio* (Aurelia Arkotxa), *Tigre ehizan* (Aingeru Epaltza), *Amaren eskuak* (Karmele Jai), *Euskaldun guztion aberria* (Iban Zaldia), *Kristalezko begi bat* (Miren Agur Meabe), *SPrako tranbia* (Unai Elorriaga), *Eta handik gutxira gaur* (Eider Rodriguez), *Belarraren ahoa* (Harkaitz Cano) eta *Negutegia* (Ixiar Rozas). Tesian jaso ditut hautaketarako irizpideak.

Euskaratik autoitzultzen duten agenteen itzulpen-joerak deskribatzea helburu dudanez, corpusean oinarrituta testuen mikroazterketa egin dut, arreta heterolinguismoan eta kulturareferentzietan jarrita. Labur esanda, orain arteko azterketek erakusten dute hainbat itzulpen-teknika darabiltzateela autoitzultzaileek, eta praktikan ez dela beti adierazten autoreak teoriarik testua aldatzeko duen zilegitasuna, nahiz hala aldarrikatzen den. Testu honen asmoa autoitzulpenaren ikuspegi orokor bat aurkeztea da, eta espero dut, labur beharrez, sinplekerian erori ez izana.

Halaber, tesitik kanpo geratzen diren beste parametro batzuk jorratzea aberasgarria litzateke autoitzulpenaren ikuspegi osoago bat izateko; kasurako, idazle bakar baten autoitzulpen-joeren bilakaera ikertzea esanguratsua litzateke, jardunean trebatu ahala itzulpen-hautuak aldatzen ote diren ikusteko, baita autore berak egindako autoitzulpenak eta itzulpenak alderatzea ere.

Erreferentziak

- Agirre Dorronsoro, Lorea (2014). «Joxe Azurmendirekin solasaldia», *Jakin* (sarean). [http://www.jakin.eus/memoria/solasaldiak/joxe-azurmendi/8]
- Anselmi, Simona (2012). *On self-translation. An exploration in self-translators' teloi and strategies*. Milano: Edizioni Universitarie di Lettere Economia Diritto.
- Apalategi, Ur (1998). «Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa». *Uztaro* 27, 63-82.
- Arrula Ruiz, Garazi (2017). «What we talk about when we talk about Identity in Self-translation», *Ticontre* 7, 1-21. [http://www.ticontre.org/ojs/index.php/t3/article/view/155]
- Casanova, Pascale (1999). *La république mondiale des lettres*, Paris: Seuil.
- (2002). «Consécration et accumulation de capital littéraire. La traduction comme échange inégal». *Actes de la recherche en sciences sociales* 144, 7-20.
- Egia, Gotzon (1999). «Anjel Lertxundi eta Jorge Gimenez Bech: idazlea eta bere itzultzailea». *Senez* 21, Donostia: EIZIE, 113-126.
- Even Zohar, Itamar (1990). «The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem». *Polysystem Studies [Poetics Today* 11:1], 45-51.
- Dasilva, Xosé Manuel (2009). «Autotraducirse en Galicia: ¿bilingüismo o diglosia?». *Quaderns. Revista de traducció* 16, 143-156. [http://ddd.uab.cat/pub/quaderns/11385790n16p143.pdf]
- (2011). «La autotraducción transparente y la autotraducción opaca», in X. M. Dasilva eta H. Tanqueiro (arg.) *Aproximaciones a la autotraducción*. Vigo: Academia del Hispánico, 45-67.
- Gentes, Eva (2013). «Potentials and Pitfalls of Publishing Self-Translations as Bilingual Editions». *Orbis litterarum*, 68/3, 266-281.
- (2015). «Research on Self-translation: A general overview», ahozko aurkezpena, *Self-translation: Local and Global* EHUko mintegian (2015/02/26).
- Grutman, Rainier (1998). «Auto-translation». *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*. New York: Routledge, 17-20.
- (2011). «Diglosia y traducción “vertical” (en y fuera de España)», in X. M. Dasilva eta H. Tanqueiro (arg.) *Aproximaciones a la autotraducción*. Vigo: Academia del Hispánico, 69-91.
- (2013). «Autotraduction, asymétrie, extraterritorialité», in C. Lagarde eta H. Tanqueiro (arg.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 37-42.

- Krause, Corinna (2005). «Translating Gaelic Scotland. The culture of translation in the context of modern Scottish Gaelic Literature», [<http://www.aberystwyth.ac.uk/mercator/images/CorinnaKrause.pdf>]
- Lagarde, Christian (2013). «L'autotraduction, *terra incognita?*», in C. Lagarde eta H. Tanqueiro (arg.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 9-19.
- Lakarra, Joseba (1996). *Refranes y sentencias (1596): ikerketak eta edizioa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lopez Gaseni, Manu (2000). *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, UPV/EHU.
- (2005). *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Manterola, Elizabete (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia*, doktore tesia, UPV/EHU.
- (2013). «Escribir y (auto)traducir en un sistema literario diglósico: la obra de Bernardo Atxaga», in C. Lagarde eta H. Tanqueiro (arg.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 61-67.
- Nikolaou, Paschalis (2005). «From the many lives of Self-Translation». *In other words: the journal for literary translators* 25, 28-34.
- Parcerisas, Francesc (2002). «Sobre la autotraducción». *Quimera: revista de literatura* 210, 13-14.
- Santoyo, Julio César (2005). «Autotraducciones: Una perspectiva histórica». *Meta* 50:3, 858-867.
- , (2014). «Autotraducciones: ensayo de tipología», P. Marino Alba, J.A. Albaladejo eta M. Pulido (arg.) *Al humanista, traductor y maestro Miguel Ángel Vega Cernuda*. Madril: Dykinson, 205-222.
- Sanz, Zuriñe (2015). *Unitate fraseologikoen itzulpena: alemana-euskara*, doktore tesia, UPV/EHU.
- Spivak, Gayatri Chakravorty (1993). «The Politics of Translation», in *Outside in the Teaching Machine*, London-New York: Routledge, 179-200.
- Tanqueiro, Helena (1999). «Un traductor privilegiado: el autotraductor». *Quaderns: Revista de traducció* 3, 19-27.
- (2013). «La autotraducción: perspectivas abiertas», in C. Lagarde eta H. Tanqueiro (arg.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la cultura*, 275-281.
- Torrealdai, Joan Mari (2016). «Euskal liburugintza 2015», *Jakin* 217, Donostia: Jakin.

- Toury, Gideon (2012). *Descriptive Translation Studies and Beyond*, Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Urkiza, Ana (2006). *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun: Alberdania.
- Urquijo, Julio (1911). *Los refranes y sentencias de 1956. Estudio comparativo*, RIEV, [Euskomendiako orrian: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/05/05375401.pdf>]
- Whyte, Christopher (2000). «Translation as Predicament», *Translation and Literature*, vol. 9, part 2: 179-187.
- Zubillaga, Naroa (2013). *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*, doktore tesia, UPV/EHU.

Oharrak eta esker ona

Artikulu honek saria jaso zuen IkerGazte 2017 kongresuan, Giza Zientziak eta Artea arloan. Esker ona adierazi nahi diot UEUri kongresua mimoz antolatzeko egindako lan handiarengatik. Senezen kaleratzeko, zertxobait moldatu dut testua; nolana den, hemen jasotakoa 2018ko udaberrian aurkeztu asmo dudan tesitik eratorria da. UPV/EHUko doktorego aurreko bekarri esker ekin nion ikerketa-lan horri, 2014an, Ibon Uribarri Zenekortaren zuzendaritzapean. Orobat eskertu nahi diot Elizabete Manterola Agirrezabalagari hasieratik emandako gidaritza eta aholkularitza oro.

Resumen

La mayoría de los trabajos de investigación sobre autotraducción analizan pares de lenguas hegemónicas, y apenas toman en consideración las relaciones asimétricas entre distintas lenguas. Si analizamos la autotraducción entre lenguas que, como en el caso del euskera, conviven en un mismo espacio geográfico y mantienen una relación de desigualdad entre ellas, los resultados dejarán en evidencia los puntos fuertes y las limitaciones de la lengua o cultura social y simbólicamente dominada. Un breve análisis teórico seguido de un análisis cuantitativo de los datos contribuirá a una visión global más clara de la autotraducción literaria a partir del euskera.

Résumé

La plupart des travaux de recherche sur l'auto-traduction étudient des traductions faites entre deux langues hégémoniques et ils ne tiennent pas compte des rapports entre deux langues asymétriques. Toutefois, si nous analysons l'auto-traduction entre ces dernières langues, comme c'est le cas entre l'euskara et les deux langues hégémoniques qui cohabitent avec elle dans un même espace géographique, à savoir, l'espagnol et le français, nous détecterons facilement les capacités et les limitations de la langue/culture socialement et symboliquement dominée. Une brève analyse théorique, suivie d'une analyse quantitative des données, nous aideront à avoir un aperçu général plus clair sur l'auto-traduction littéraire à partir de l'euskara.

Abstract

Most research on self-translation generally focuses on pairs of dominant languages, but has little to say about asymmetrical relationships between languages. In approaching self-translation from the perspective of languages that occupy the same geographical space but have unequal status, as in the case of Basque, which coexists with two dominant languages (French or Spanish), the strengths and and limitations of a language or culture that is symbolically or socially dominated become clear. A brief theoretical analysis followed by a quantitative examination of the data provide a general overview of literary self-translation from Basque.